

Sakontze egitasmoa
HIZNET hizkuntza plangintza graduondokoa
2008/2009

EBPN-ren garapena Mundakan

Ikaslea: Saioa Larrauri Castresana

Tutorea: Aintzane Arrieta

1 LABURPENA

Dokumentu honek 2008/2009 ikasturtean zehar landutako HIZNET hizkuntza plangintza graduondokoa titulua lortzeko burututako sakontze egitasmoa biltzen du.

Sakontze egitasmo honetan Mundakan garatzeko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren proposamena egin da.

Sakontze egitasmoa herriaren deskribapen orokorretik abiatu da, herria bere osotasunean ulertu ahal izateko. Ondoren Hizkuntza Politika Sailburuordetzatik eskainitako metodologia eta ereduak erabiliz, Mundakako diagnosi kualitatiboa eta kuantitatiboa egin dira baina diagnosirako datuak eskuratzeko hainbat zailtasun egon dira, datuak eskuragarri ez zeudelako edota aspaldikoak zirelako. Azkenik, lanketa esparruak eta helburuak definitu ostean, datozen urteetarako Plan Estrategikoaren proposamen bat egin da, eta horrez gain, lehenengo urterako gestio plan proposamen bat ere zehaztu da.

Lan honen xedeak honako hauek dira:

1. Orain arte aztertu gabeko herri baten azterketa egitea.
2. Herri zehatz batean, EBPN-a aurrera eramateko urratsak praktikan jartzea.
3. EBPN-a garatzea (diagnosia, plan estrategikoa, gestio plana)

2 AURKIBIDEA

1	<i>Laburpena</i>	2
2	<i>Aurkibidea</i>	3
3	<i>Azalpen orokorrak</i>	5
3.1	Mundaka	5
3.1.1	Euskara zerbitzua	7
3.1.2	Biztanleria	7
3.1.3	Enplegua	9
3.1.4	Familia	9
3.1.5	Euskalduntzea-Prestakuntza	11
3.1.6	Irakaskuntza	11
3.1.7	Administrazioa	12
3.1.8	Lan Mundua	13
3.1.9	Aisia	13
3.1.10	Kirola	14
3.1.11	Kulturgintza	15
3.1.12	Komunikabideak	16
3.1.13	Teknologia berriak	17
3.2	EBPN- Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia	18
3.2.1	Prozedura	18
4	<i>EBPN-ren diagnosis</i>	21
4.1	Galdera orokorrak	22
4.1.1	Euskara zerbitzua	22
4.1.2	Biztanleria	23
4.1.3	Enplegua	24
4.2	Datuak esparruka	25
4.2.1	Familia	25
4.2.2	Euskalduntzea-Prestakuntza	27
4.2.3	Irakaskuntza	29
4.2.4	Administrazioa	30
4.2.5	Lan Mundua	31
4.2.6	Aisia	33
4.2.7	Kirola	34

4.2.8	Kulturgintza	35
4.2.9	Komunikabideak	38
4.2.10	Teknologia berriak	39
4.3	Ahuleziak/Indarguneak matrizea	40
4.4	Ondorio nagusiak	43
5	2009-2012 Plan Estrategikoa	45
6	2009ko kudeaketa plana	47
6.1	Familia transmisioa	47
6.2	Euskalduntzea-Prestatzea	48
6.3	Aisia	50
6.4	Kulturgintza	51
7	Bibliografia	52

3 AZALPEN OROKORRAK

3.1 Mundaka

Mundaka Bizkaiko Busturialdea eskualdean, izen bera duen itsasadarraren ezker aldean kokatutako herria da. Udalerri mugakideak honakoak ditu: hegoaldean Sukarrieta, mendebaldean Bermeo eta Busturia, eta ekialdean Kantauri itsasoarekin. Egiten du muga.



2006ko datuen arabera, Busturialdea eskualdean 45.010 biztanle bizi dira; hauetatik, mundakarrak 1.846 dira, eskualdeko biztanleen %4,10. Busturialdea 19 herri osatzen dute: Ajangiz, Arratzu, Bermeo, Busturia, Ea, Elantxobe, Ereño, Errigoiti, Forua, Gaategiz-Arteaga, Gernika, Ibarangelu, Kortezubi, Morgia, Mundaka, Murueta, Muxika, Nabarniz eta Sukarrieta. Eskualdeko herri garrantzitsuenak Bermeo eta Gernika dira, 16.789 (%37,3) eta 15.981 (%35,5) biztanlerekin, hurrenez hurren.

Mundakako Udaleko alkatetza, demokrazia garaian, EAJren esku egon da. Udalbatza alkateak eta zortzi zinegotzik osatzen dute, hauetariko bost EAJ alderdikoak dira; gainontzekoak, EAKoak. Aurreko legealdietan ezker abertzaleak ere ordezkari izan du Mundakako Udalean baina ilegalizazioak bitarteko, azken hauteskundeetan ez du parte hartzerik izan.

Euskararen ezagutzari dagokionez, Busturialdea Bizkaiko eskualde euskaldunenetarikoa da, beheragoko taulan agertzen diren datuek erakusten dutenez. Lea-Artibai eskualdeak baino ez ditu ematen Busturialdeak baino ezagutza datu altuagoak. Mundakak eskualdeko ezagutza tasaren pareko tasa ematen du.

Eskualdea/herria	guztira	euskaldunak	ia-euskaldunak	elebidun-tasa¹ (%)
Bizkaia	1.108.209	347.302	255.238	42,85
Arratia Nerbioi	21.744	11.955	4.198	64,63
Bilbo Handia	846.624	207.659	202.161	36,47
Busturialdea	43.909	31.880	7.269	80,88
Durantaldea	91.783	44.564	20.570	59,76
Enkartzazioak	29.701	5.998	6.361	30,90
Gorbeia-Inguruak	7.772	3.139	1.731	51,52
Lea -Artibai	25.451	21.162	2.725	88,50
Plentzia-Mungia	48.997	24.084	11.954	61,35
Bermeo	16.375	12.040	2.764	81,97
Gernika	15.547	10.552	2.779	76,81
Mundaka	1.810	1.263	389	80,52

Iturria. Eustat: 2 urteko eta gehiagoko biztanleria lurralde-eremuaren eta euskara-maila orokorraren arabera 2006

Euskararen erabilera daturik ez daukagu Mundakan, 5.000 biztanlez beherako herria izanik ez baita inoiz kale neurketarik egin, eta herritik bertatik ere ez da datu hori lortzeko azterketarik bideratu. Hala ere, ezagutza datuaren eta erabilera datuaren arteko aldea nabarmena da ezbairik gabe. Hori dela eta, euskararen erabilera sustatzeko asmoz, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia egin nahi da herrian.



¹ Elebidun-tasa= euskaldunak + ia-euskaldunak/2

Diagnosia egin aurretik herria ezagutzeko zenbait arlo aztertuko dira ondorengo lerroetan, eta horretarako, EBPN-ren diagnosia egitean zehazten diren arloak erabiliko ditugu, diagnosia egitean bateragarriak izan daitezen.

3.1.1 Euskara zerbitzua


Mundakako Udalean ez dago, bere horretan, euskara zerbitzurik. Udaleko zinegotzi batek du euskararen ardura, kirolarekin eta kulturarekin batera. Azken urtean, ordea, EBPN garatzeko asmoz honetan diharduen enpresa bat azpikontratatu du Udalak, EBPN diagnosia egin ondoren, inplementazioarekin hasteko. Honekin batera Euskara Batzorde bat sortu dute herriko taldeetako eta udaleko zenbait ordezkari osatua.

Inguruko herrietan, berriz, bestelako bidea jorratu dute. Horren adibide Busturia eta Bermeo ditugu, biak ala biak UEMAko kideak. Euskara Zerbitzuari dagokionez, Bermeon, adibidez, hainbat urte daramatza martxan eta aurrerapauso handiak egin ditu herriko hainbat alorretan, hala nola merkataritzan, herriko erabileran, udaleko erabileran.

3.1.2 Biztanleria


Azken urteotan Mundakako biztanleriak gora egin du. Joera etengabea eta goranzkoa izan da, eta horren ondorioz azken hamabost urteetan %15 igo da biztanle kopurua.

Arrazoi nagusi bi daude horren atzean, alde batetik etorkinak daude. Udaleko datuen arabera 101 dira Estatuaz kanpoko etorkinak, egungo populazioaren % 5,5 eta horrek azken urteetako populazio hazkundearen erdia suposatzen du, gutxi gorabehera. Beste aldetik, azpiegiturak hobetu izana dago. Errepideak hobetu dira eta horren ondorioz, lehen Bilbon bizi eta lan egiten zuen jende asko Mundakan geratu da.



Biztanlerian eragina izan duen beste faktore bat etxebizitzaren salneurria izan da. Mundakak ez du hedadura handirik, eta ondorioz, ez du eraikitzeko lurrik. Hori dela kausa, eraikitzen diren etxebizitzak oso garestiak dira. Bestalde, oso urriak izan dira Udaletik eta Eusko Jaurlaritzatik lagundutako etxebizitzak. Egoera hau bitarteko herriko jende gazte asko inguruko herrietara joan da. Beraz, jende aldaketa handia egon da arrazoi honengatik.


Adin tarteei dagokienez, aipagarria da gertatu den aldaketa. Gizarteak izan dituen aurrerakuntzen lekuko, adineko jende kopurua hazi (%23) egin da azken urteotan; 19 urtez beherakoen kopurua, aldiz, %35 txikitu da.



3.1.3 Enplegua

Mundaka zerbitzu herria da. Lehen eta bigarren sektoreak ez du eragin handirik enpleguan, hirugarrenak du pisu handiena. Herritar gehienek herritik kanpo egiten dute lan, eta herrian dihardutenak, batik bat, turismora zuzendutako lanbideetan ari dira lanean.

Ondorengo irudian ikus dezakegu lan esparru bakoitzak, ehunekotan, zein pisu duen herriko jarduera ekonomikoan. Zerbitzu arloak du pisu nagusia.




3.1.4 Familia

Mundakako errealitatea ulertzeko ezinbestekoa da etxean hizkuntzarekiko dauden ohiturak aztertzea. Azken urteetako erroldako datuei erreparatuko diegu ama hizkuntza eta etxean erabiltzen den hizkuntza aztertzeko. Datuak oso esanguratsuak dira.


Ama hizkuntzari dagokionez, azken 15 urteetan ia 25 puntutan egin du behera ama hizkuntza euskara duten biztanleen ehunekoak. Datuak ez dira puntualak, joera bat irudikatzen dute. Euskarak ama hizkuntza gisa beheranzko joera duen bitartean, gaztelaniak goranzkoa du, eta azken 15 urteetan ia 20 puntutan egin du gora.

Ama hizkuntza



Etxean erabiltzen den hizkuntzari dagokionez, euskara hutsez edo gaztelania hutsez funtzionatzen duten etxeen kopuruak gora egin du. 1991.urtean etxean bi hizkuntzak erabiltzeko joera handia bazen ere, hurrengo erroldetako datuetan hizkuntza bietako baten aldeko hautua egin dela ikus dezakegu. Bai euskararen kasuan, bai gaztelaniaren kasuan hizkuntza bakarra erabiltzen dutenen kopuruak gora egin du, hala ere, etxean gaztelania erabiltzen dutenak gehiago dira.

Etxean erabiltzen den hizkuntza



Bi adierazle hauek erakusten dute, herriko ezagutza handia izan arren, hizkuntza ohiturek izan duten bilakaera.

Derrigorrezko hezkuntza sisteman sartzean ama hizkuntza euskara duten haurren kopurua asko aldatzen da urtearen arabera. Azken urteetan etorkinen errealitatea dela eta, urtero izaten dira guraso etorkinen haur bi edo hiru. Datu honen aldagarritasunaren adierazgarri urtengo 2 urteko gela eta hiru urteko gela konparatuko ditugu:

Gela	Haur kopurua	Etxetik euskara	ehunekoa
2 urteko gela	17	11	% 64,7
3 urteko gela	12	10	% 83,3

3.1.5 Euskalduntzea-Prestakuntza

Mundakan ez dago helduak euskalduntzeko erakunderik.


Euskara ikasteko baliabideak Bermeon daude, eskualdeko Hizkuntza Ofiziala eta Gotzon Garitaonaindia eukaltegia. Ezinezkoa da bertan ikasten duten mundakarren kopurua zehaztea. Udalak, bestalde, ez du euskara ikasketak sustatzeko diru-laguntzarik eskaintzen.

3.1.6 Irakaskuntza

Mundakan eskola bakarra dago, Mundakako Eskola Publikoa eta bertan Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza egin dezakete hurrek. Bigarren hezkuntza eta Batxilergoa egiteko Bermeoko edo Gernikako Institutuetara jo behar dute mundakarrek.

Mundakako Eskola ikastetxe publikoa da eta euskarazko eredia baino ez dago, hau da, D eredia.

Grafikako datuei erreparatuta, azken urteotan Mundakako Eskolan egon diren matrikulazioen joera ikus dezakegu. 90.hamarkada hasieran izan zen matrikulazio kopuru handiena, eta handik aurrera beheranzko joera etengabea izan da. Badirudi azken urteetan berriro ere goranzko bidea hartu duela.



Mundaka	2006	2005	2004	2003	2002	2001	2000	1999	1998	1997	1996	1995	1994	1993
Haur Hezkuntza	56	55	42	40	39	42	41	46	49	54	46	42	38	22
Lehen hezkuntza	68	70	68	71	61	65	58	46	52	55	59	90	118	136
Guztira	124	125	110	111	100	107	99	92	101	109	105	132	156	158

3.1.7 Administrazioa

Administrazioak aparteko adarra suposatzen du EBPNren garapenean, arlo honi dagokion Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana baitago abian administrazio arlorako. Mundakako kasuan, udala da administrazioko erakunde bakarra.

3.1.8 Lan Mundua

Mundaka, batik bat, zerbitzu herria da. Turismora zuzendutako hainbat hotel, jatetxe eta taberna daude herrian, 25 hain zuzen ere. Guztira 148 enpresa daude, baina horien artean kontatzen ditugu ostalaritza zerbitzuak, merkataritza zerbitzuak, etab.

Jende askok egiten du herritik kanpo lan, ezin zehaztu, hala ere, kopuru zehatza. Badakigu herriko enpresek 400 langile ingururentzako lana suposatzen duela, baina denak ez dira herrikoak.

Ez dago lan mundua gehiago xehetzeko baliabiderik. Eustatek lan egiten duten mundakarren jarduera arloa ematen du baina azken datua 2001.urtekoa da. Gauzak asko aldatu dira 8 urtetan.

3.1.9 Aisia

- Guztiok

Etorrinak integratzeko proiektua da. Aisian zein kulturgintzan koka dezakegu, bi arloetan eragiten baitu. Kanpotik etorritako jendea eta herrikoa hurbiltzeko proiektua da eta batik bat, gazteekin egiten du lan, nahiz eta denen parte hartzea bilatu.

GUZTIOK proiektuaren helburuetariko bat kulturartekotasuna eta gizarteratzea dira eta horretarako arlo desberdinak lantzen dituzte ume, gazte zein helduekin (harremanak, familia, aisialdia, giza trebetasunak, euskara etab.).

Umeen kasuan, euskara ez dute euskara eskolen bitartez bakarrik lantzen, bide desberdinak jorratzen dituzte.

- Modu transbersala: Saio desberdinak edukitzen dituzte egunero eta guztietan lantzen dute euskararen erabilera ekintza desberdinen bitartez (aurkezpenak, antzerkiak, filmak, musika...).

- Euskara eskolak: gramatika, lexikoa etab. lantzen dituzte.

- Hezkuntza indargarria eta laguntza eskolak: Eskolan emandako edukiak begiratzen dituzte, bide batez euskara landuz.

- Ehiza Taldea
- Usuarios del Puerto
- Elkarte gastronomikoak
- Lokalak

Gazte jendeak elkartzeko eta egoteko alokatzen dituztenak. Hainbat koadrilak dute lokala mundakan.

3.1.10 Kirola

Bost dira Mundakako kirol elkarteak.

- Mundaka Arraun Taldea

Kategoria ezberdinetako partaideak ditu elkarte honek. Hasiera adina 10 urte inguruan dago, eta handik gora kategoria guztietako arraunlariak daude. Senior taldea ere badago. Gizonezkoek baino ez dute parte-hartzen kirol honetan. Ez du kide kopuru zehatzik, urtearen arabera oso aldakorra izaten da.

- Urdaibai eskubaloi Taldea

Kategoria ezberdinetako partaideak ditu elkarte honek. Hasiera adina 10 urte inguruan dago, eta handik gora kategoria guztietako kirolariak daude. Senior taldea ere badago. Emakumeek egiten dute gehien, baina gizonezkoen talde seniorra sortu berria da. Adin ezberdineko kide asko elkartzen diren kirol elkarteak.

- Mundaka Surf Taldea

Gero eta kide gehiago batzen dituen elkartea, egun 100 inguru dira arduradunen arabera. Gazte asko hasi dira surfean, baina heldu eta arduradun gehienak ez dira elebidunak. Ikastaroak antolatzen dituzte udan.

- Gazte zar mendiko taldea

49 kide federatu ditu eta federatu izan ez arren mendiko taldeko kide direnak 70 inguru dira. Jende asko mugitzen zuen elkartea, azken urteetan talde txiki batek baino ez ditu mendi irteerak egiten.

- Mundaka Kayak taldea

Talde hauetaz gain, Udaleko kiroldegian hainbat ikastaro eskaintzen ditu Udalak. Normalean adineko jendearentzat izaten dira, mantentze kirola bezalakoak.

Bestalde, Katillotxu emakume elkarteak yoya, pilates...ikastaroak antolatzen ditu urtean zehar.

3.1.11 Kulturgintza

- Gazte Zar dantza taldea

Mundakako dantza taldea da. 35 urte arteko kideak elkartzen dira elkartean. 50 kide dira eta guztiak euskaldunak. Euskara izan ohi da haien hizkuntza.

- Gazte Zar dantza eskola

Haur txikiei euskal dantzak irakasteko eskola. 60 haur ari dira bertan dantzak ikasten. Euskaraz irakasten dute.

- Katillotxu emakumeen elkarte

Emakume elkarte. Hainbat ekimen eta ikastaro antolatzen dituzte urtean zehar. Irteerak, ikastaroak, kirol ikastaroak, antzerki tailerra, sukaldaritza tailerra, dantza tailerra. Oro har gaztelaniaz izaten dira, jendeak euskara jakin arren, ohitura dela eta gaztelaniaz funtzionatzeko joera baitu. Hala ere, hainbatek ez dute hizkuntza ezagutzen.

- Mundakako Atorrak

Mundakako Aratusteeekin lotutako elkarte. Aratuste eguna antolatzeaz arduratzen da eta horrez gain, urteetan sortutako abestiak jagoteaz eta gordetzeaz.

- Mundakako Abesbatza
- Ludoteka eta liburutegia

Hauetaz gain, haurrei musika eta pianoa irakasten dien emakume bat ere badago. Euskara hutsean ematen ditu musika eskolak.

3.1.12 Komunikabideak

Mundakan ez dago euskara hutsezko herri komunikabiderik. (gaztelaniaz ere ez dago). Eskualde mailan ondorengoak daude:

- Busturialdeko hitza
- Oiz-mendi telebista (Urdaibai telebista)

Biak ala biak euskara hutsean argitaratzen dira.

Mundakako Udalak euskaraz eta gaztelaniaz argitaratzen du *Mundaka Berri* hiruhilekoa. Bertan herriarentzat interesgarriak izan daitezkeen berriak argitaratzen dira.

3.1.13 Teknologia berriak

Ez dira bereziki landu herrian.


3.2 EBPN- Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia

EBPNren helburu nagusia honako hau da: euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea; maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.

Helburu nagusi horrez gain, EBPNk hiru helburu estrategiko ere baditu: Euskara ondorengoetaratzea, euskara erabiltzea, eta euskara elikatzea. EBPN, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia, berez, hizkuntzaren normalizazioan aurrera jarraitzeko plan estrategikoa den aldetik, hizkuntza-politika egiten diharduten herriagintariei euren jarduna bideratzen lagunduko dien oinarrizko tresna da. *(EBPN garatzeko prozedura)*

3.2.1 Prozedura

Eusko Jaurlaritzako Sailburuordetzak honela irudikatzen du EBPN definitzeko prozesua. Prozesu honetan lana aurrera eramateko ibilbidea zehazten du, eta metodologia bateratu bat proposatzen du:



Prozesu honetan zehaztutako urratsak ondorengoak dira:

1.-Antolamendua-aurkezpena:

- Udalak HPS-ri eskaera egin behar dio.
- Bilera politikoa
- Bilera teknikoa
- Euskara Batzordea sortu
- EBPN-ren hasiera udalerrian komunikatu

2.- Diagnostika

- Datu bilketa kuantitatiboa
- Balorazio kualitatiboa
- Diagnostika (zirriborroa, adostu, behin betikoa)

3.- Plana

- Esparruak eta helburuak aukeratu
- Plan estrategikoa zehaztu (kontrastatu eta onartu)
- Urteko Gestio Plana (kontrastatu eta onartu)

4.- Jarraipena

Lan honetan, aplikazio errealik ez duenez izan, metodologia honetan zehaztutako hainbat urrats ezin izango dira bete. Lehenengo urratsa ez da landuko, pausu guztiak eman direla suposatuko dugu eta zuzenean diagnostikora, 2. urratsera egingo dugu jauzi.

Diagnostikoan ere gauza bera gertatuko zaigu, ez da kontrasterik ez onarpenik egongo, ontzat emango dugu egilearen proposamena . Planari dagokionez, hau da, inplementazioari dagokionez, gauza bera esan dezakegu.

Azkenik, ez dugu jarraipen atala landuko, lan hau ez delako Mundakako Udalean inplementatuko.

4 EBPN-REN DIAGNOSIA

EBPN-ren diagnostia egiteko Eusko Jaurlaritzak 2008.urtean erabilitako proposamen eredu hartu da oinarrian. Eredu honetan EBPN-ak zehazten dituen 10 esparruen azterketa egiten da.

Alde batetik datu kuantitatiboen azterketa jasoko da, hau da, definitutako esparru bakoitzeko datuak baliatuko dira taula betetzeko. Datu horiek lortzeko Udaleko datuak, banakoen aportazioak, eustat-en guneko informazioa, eta beste erabiliko dira. Irizpidea ahalik eta datu eguneratuenak erabiltzea izan da, eta zenbait momentutan irizpide honek zalantzak eta zailtasunak eragin ditu. Hori dela eta, sarritan ezin izan dira urte bereko datuak erabili.

Beste aldetik, diagnosiaren parte kualitatiboa ere aztertzen saiatuko gara. Datuetatik abiatuta eta herriaren izaera eta ohiturak ezagututa, datu horiek ulertzen, baloratzen saiatuko gara eta balorazio horiek idatziz jasoko ditugu. Planaren arlo bakoitzean aztertuko dira esparru zehatzak izan ditzakeen indarguneak eta ahuleziak.

Aurreko metodologian AMIA matrizea egin ohi zen. Horrela proiektuaren aukerak, mehatxuak, indarguneak eta ahuleziak jaso ondoren azterketa orokorra egitea ahalbidetzen zuen matrize honek. Egungo metodologiak AMIA matrizea ez egitea proposatzen du, prozesua erraztu, bateratu eta estandarizatu asmoz.

Azalpen orokorra eman ondoren esparruz esparruko azterketa egingo da ondorengo tauletan:

4.1 Galdera orokorrak

4.1.1 Euskara zerbitzua

	2008	Oharrak
1.1.- Euskara zerbitzuaren aurrekontua guztira (€)	6.000€	
1.2.- Euskara zerbitzuaren baliabideak (pertsona/ordu)		Pertsona bat asteko 12 orduko dedikazioarekin

Iturria: Udala

Ahuleziak	Indarguneak
<ul style="list-style-type: none"> - Ez dago baliabide nahikorik, ez materialak ez giza baliabideak. - Udalak ez du inplikaziorik erakusten. - Azpikontratazioa, ez dago epe luzera horretan jardungo duen pertsonarik - 	<ul style="list-style-type: none"> - Inguruko herrien bultzada. - Eusko Jaurlaritzaren egitasmoa. - EAEko herri askotan garatu da EBPN -

♪ Laguntza:

- Bada nahikoa baliabide Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia aurrera eramateko?
- Euskara zerbitzuaren baliabideak (giza baliabideak edota baliabide materialak) egokiak dira?

4.1.2 Biztanleria

	1991	1996	2001	2006	2008	Oharrak
1.1.- Udalerriko biztanleria eta bere bilakaera	1641	1781	1853	1846	1879	
1.2.- Biztanleria adin taldeka eta bere bilakaera: Biztanleria <19 (%)	%22,97	%19,15	%15,65	%13,38		2008ko daturik ez dago
Biztanleria 20-65 (%)	%57,22	%59,18	%63,03	%65,01		2008ko daturik ez dago
Biztanleria > 65 (%)	%19,80	%21,67	%21,32	%21,61		2008ko daturik ez dago
	2008	Oharrak				
1.3.- Biztanleriaren dentsitatea (Bizt./Km2)	445					
1.4.- Biztanleria jaioterriaren arabera: Sedentarioak (%)	1686	Datuak 2001ekoak dira eustatek ez du hurbilagoko daturik. Sedentarioetan EAEkoak baino ez dira kontatzen hartzen.				
Barne migratzaileak (%)	102					
Etorri berriak (%)	65					

Iturria: Eustat
www.eustat.es

Ahuleziak	Indarguneak
<ul style="list-style-type: none"> - Gero eta biztanle gehiago eta gero eta etorkin gehiago, bai Euskal Herritik, bai Estatutik, bai atzerritik. - Gero eta haur/gazte gutxiago. - Etorkinei ez zaie euskararen beharra transmititzen, ez dute lanerako behar. - Etorri berri gehienak errumaniarrak eta hegoamerikarrak: gaztelaniadunak. Errumaniarrek gaztelania ikasten dute. 	<ul style="list-style-type: none"> - Kulturantzatasuna eta integrazioa sustatzeko proiektua jarri du abian udalak: "guztiok". - Eskolan D hizkuntza eredu, haurrek euskaraz ikasiko dute. - Trinkotze maila handia, biztanleria herrian bizi da, ez dago auzotan eta baserritan sakabanatuta.

♪ Laguntza:

- Azken urteetan gehitu ala gutxitu egin da biztanleria?
- Biztanleria oso sakabanatua dago ala kontzentratua?
- Biztanleriaren zahartze maila altua da? Ingurunekoa baino altuagoa ala baxuagoa?
- Etorri berrien kopurua altua da? Gaztelaniaz badakite etorri berri horiek?

4.1.3 Enplegua

	2008	Oharrak
3.1.- Establezimenduak eta enplegua jarduera adarraren arabera:		
Industria eta energia (kop)	9	
Eraikuntza (kop.)	20	
Merkataritza, ostalaritza, garraioak (kop)	66	
Bankuak, aseguruak eta enpresa zerbitzuak (kop.)	28	
Bestelako zerbitzu jarduerak (kop.)	25	

Iturria: Eustat
www.eustat.es

Ahuleziak	Indarguneak
<ul style="list-style-type: none"> - Ez dago merkataritza sarerik ezta elkarterik ere. Ez dago saretuta. - Herriko ostalaritza barne eta kanpo turismora zuzenduta, euskarak ez die balio erantsia suposatzen. - Herriko ostalaritza establezimenduetan atzerriko jende askok egiten du lan. - Ez da merkataritza mailan euskara sustatzeko esperientziarik bultzatu. 	<ul style="list-style-type: none"> - Dendetako jabeek euskara ezagutza handia dute.

♪ Laguntza:

- Biztanleriaren enplegua edo establezimenduak direla-eta bada ezer aipagarririk? Merkataritza sare garrantzitsurik bada? Elkarterik bai? Esperientziarik bada arlo horretan?

4.2 Datuak esparruka

4.2.1 Familia

4.2.1.1 Euskararen erabilera handitu etxeko esparruan, eta transmisioa ziurtatu familia kideen arteko hizkuntza izan dadin.

	2008	Oharrak
• 1.1.1.-Derrigorrezko hezkuntza sisteman sartzean, ama hizkuntza euskara duten haurren (%)		Datu oso aldatkorra da, urtearen arabera. Aurten 2 urteko gelan %64, 3 urteko gelan %83
• 1.1.2.- Etxean erabiltzen den hizkuntza: Euskara (%)	%35,37	Datuak 2006ko zentsukoak dira, EAS-ek 2001ak baino ez ditu ematen. Datu honen kasuan oso komenigarria da azken urteetako joerak ikustea.
Euskara eta gaztelania (%)	%17,44	
Gaztelania (%)	%46,53	
Beste bat (%)	%65	
• 1.1.3.-Lehen hizkuntza (>5urte) adinaren arabera: Guztira(kop.)	1846	Datuak 2006ko zentsukoak dira, EAS-ek 2001ak baino ez ditu ematen. Populazio osoarenak, ez ,>5 urte Datu honen kasuan oso komenigarria da azken urteetako joerak ikustea.
Euskara (kop.)	1026	
Euskara eta gaztelania (kop.)	157	
Gaztelania (kop.)	635	
Beste bat (kop.)	28	
• 1.1.4.- Hizkuntzaren bilakaera (>5urte) adinaren arabera: Guztira(kop.)	1784	Datuak EASek 2001 urterako ematen dituenak dira >5 kasurako. Datuak zaharkituak egon daitezke.
Euskaldun zaharrak (kop.)	1006	

Jatorrizko elebidunak (kop.)	108	
Euskaldun berriak (kop)	168	
Partzialki euskaldun berriak (kop)	187	
Partzialki erdaldunduak (kop.)	95	
Gutziz erdaldunduak (kop.)	14	
Erdaldun zaharrak (kop.)	206	

Iturria: EAS.

http://www.euskadi.net/euskara_adierazleak/gaiak.apl?hizk=e

Ahuleziak	Indarguneak
<ul style="list-style-type: none"> - Gero eta gaztelania gehiago egiten da etxean - Ohiturak: gaztelaniarako joera - Ezagutza handia dago, transmisioa ematen da baina etxeko erabileran etena gertatzen da. - Ezagutza datuarekin alderatuta, erabilera baxua da oso 	<ul style="list-style-type: none"> - Gero eta euskara gehiago egiten da etxean - Euskararen ezagutza oso altua - Gerora euskara ikasi dutenen datu esanguratsua - Euskaldun gehienek etxean jasotzen dute euskara, transmisioa ematen da.

♪ Laguntza:

- Euskaldunen artean zenbatek jaso du euskara etxean? Kopurua esanguratsua da ala ez?
- Zenbatek ikasi du gerora?
- Erdaldunduen ehunekoa altua da? Eta bilakaera?
- Gero eta gehiago dira etxean ikasi dutenak? Gero eta gehiago erdaldunduak?
- Zein hizkuntza erabiltzen da etxean? Ezagutzarekin alderatuta erabilera hori altua da ala baxua?

4.2.2 Euskalduntzea-Prestakuntza

4.2.2.1 Euskararen aldeko motibazioa eta euskararen ezagutza handitu herritarren artean.

	2008	Oharrak
• 2.1.1.- Ikasle kopurua herriko euskaltegietan		Herrian ez dago euskaltegirik
• 2.1.2.- Ikasleak/ (erdaldunak+ia euskaldunak)		Herrian ez dago euskaltegirik
• 2.1.3.- Ikasleei eskainitako diru-laguntzak, guztira		Ez da diru-laguntzarik eskaintzen Udaletik. HABEk eskainitakoak
• 2.1.4.- Xede bereziekin antolatutako ikastaro kopurua	2	Haur etorkinentzat antolatutako euskara eskolak. Udaleko langileentzat antolatutako euskara eskolak
• 2.1.5.- Xede bereziko ikastaroetako ikasle kopurua	20	Haur etorkinak: 12 Udalan: 8
• 2.1.6.- Ikasleen jarraitasun-tasa		Haur etorkinak ikasturte osoan egon dira, egunean ordu bete. Udaleko datuak: ezezaguna
• 2.1.7.- Biztanleriaren hizkuntza gaitasuna		Datuak Eustat-etik jasoak. 2 urte baino gehiagokoen datuak jasotzen ditu. 2006ko datuak
• Elebidunak (%)	%69,78	
• Elebidun hartzaileak (%)	%21,50	
• Erdaldun elebakarrak (%)	%8,72	
• 2.1.8.- Euskal hiztunen alfabetatze maila		Datuak Eustat-etik jasoak. 2 urte baino gehiagokoen datuak jasotzen ditu. 2006ko datuak
• Alfabetatuak (%)	%67,14	
• Erdizka alfabetatuak (%)	%24,30	
• Alfabetatu gabeak (%)	%8,55	
• 2.1.9.- Orokorrean, kaleko euskararen erabilera (%) (*)		Ez da neurketarik egin

Iturria: Udalerriko euskaltegiak, udaleko euskara zerbitzua, EAS, Eustat

Kale neurketaren emaitza berriak barneratzeko aukera utzi: [adinka](#), [zonaldeka](#), [jardueraka](#),....

4.2.2.2 Helduen prestakuntza eskaintzan euskararen erabilera handitu.

	2008	Oharrak
• 2.2.1.-Helduen prestakuntza euskaraz, edo batez ere euskaraz, ematen duten akademia/zentro/elkarteak (%)	-----	Ez dago helduen prestakuntzarako zentrorik
• 2.2.2.- Udaletik kanpoko egiturek euskaraz ematen dituzten ikastaroak (%)	-----	Emakume elkarteak ikastaroak gaztelaniaz: ohitura eta ezagutza.
• 2.2.3.- Udalak antolatzen dituen euskarazko ikastaroak (%)	-----	Udalak ez du ikastarorik antolatzen.
• 2.2.4.- Ikasle kopurua euskaraz emandako ikastaroetan (%)	-----	-----

Iturria: Udalerriko prestakuntza zentroak, udala.

Ahuleziak	Indarguneak
<ul style="list-style-type: none"> - Ez dago euskara ikasteko zentrorik. - Ez dago euskara ikasteko diru laguntzarik. - Adinaren arabera hiztun alfabetatuak: eskolan euskara ikasteko aukera izan dutenak alfabetatuak, helduak alfabetatugabeak. (>35) - Ez dago ikastaroak antolatzeko ohiturarik, izatekotan gaztelaniaz. - Ezagutzaren datua behera herrian (2006<2001) - Helduek hizkuntza ohiturak oso errotuta: gaztelaniaren belaunaldiak. - Ohituraz, ingurukoekin alderatuta, herri erdalduna izan da Mundaka. 	<ul style="list-style-type: none"> - Haur eta gazte etorkinei euskara maila ona lortzeko: Guztiok proiektua, Udaletik lagundua. - Haur eta gazte guztiak euskaldun alfabetatuak dira (<35) - Euskararen ezagutza altua - Adin taldeak: gazte eta haurrek ondo ezagutzen dute hizkuntza. - Itsasoarekin lotura izan duten gizonak euskararako joera, eta euskara maila oso ona.

♪ Laguntza:

- Orokorrean, euskararen ezagutza maila altua da ala baxua? Ikasle potentzialekin alderatuta, altua da euskara ikasle kopurua? Gehituz ala gutxituz doa? Alfabetaturik daude euskal hiztunak? Bada xede berezietara zuzendutako ikastarorik? Eta horietako partaidetza ona da?
- Ezagutzarekin alderatuta erabilera altua da ala baxua?
- Urtez urte, handituz edo gutxituz doa?
- Adin taldeei dagokionean bada ezer berezirik aipatzeko? Eta zonaldeka? Eta lanbideka?

4.2.3 Irakaskuntza

4.2.3.1 Euskarazko ikastereduak sustatu

	2008	Oharrak
• 3.1.1.- 0-3 urte bitarteko udalerriko haur kopurua	40	Datua hurbilpena, ez dut datu zehatza lortzerik izan.
• 3.1.2.- 0-3 bitarteko plaza kopurua euskaraz	20	
• 3.1.3.- 0-3 bitarteko matrikulazioa euskaraz (%)	%100	
• 3.1.4.-Haur eta Lehen Hezkuntzako plaza kopurua D eremuan	124	
• 3.1.5.-Haur eta Lehen Hezkuntzako matrikulazioa D eremuan (%)	%100	
• 3.1.6.- DBHko plaza kopurua D eremuan		Ez dago ikastetxerik
• 3.1.7.- DBHko matrikulazioa D eremuan (%)		
• 3.1.8.- Batxilergoko plaza kopurua D eremuan		Ez dago ikastetxerik
• 3.1.9.- Batxilergoko matrikulazioa D eremuan (%)		
• 3.1.10.- Lanbide Heziketako plaza kopurua D eremuan		Ez dago ikastetxerik
• 3.1.11.- Lanbide Heziketako matrikulazioa D eremuan (%)		
• 3.1.12.- Etorri berrien matrikulazioa D eremuan (%)	%100	

Iturria: Udalerriko ikastetxeak, Hezkuntza Saila, Eustat, Udala.

4.2.3.2 Eskolaz kanpoko prestakuntza jardueratan euskararen erabilera areagotu.

	2008	Oharrak
• 3.2.1.- Eskolaz kanpoko prestakuntza euskaraz, edo gehienbat euskaraz ematen dituzten akademiak (%)	%100	Ez dago akademiarik, eskola partikularrak ematen dituzten banakoak daude.
• 3.2.2.- Eskolaz kanpoko prestakuntzan euskaraz ematen diren ikastaroak(%)	%100	
• 3.2.3.- Ikasle kopurua eskolaz kanpoko euskarazko ikastaroetan (%)		Etorkinak 12 dira, baina Mundakako eskolakoak ez ezik, nagusiagoak ere izaten dira.

Iturria: Udalerriko prestakuntza zentroak.

Ahuleziak	Indarguneak
<ul style="list-style-type: none"> - Ez dago 0-3 artean behar beste plaza baina eskaintza handitu egin da. - Eskolak euskaraz dira baina jolasorduak, jatorduko tartea: gaztelaniarako joera handia. 	<ul style="list-style-type: none"> - Eskola bakarra, eredu bakarra: D - Hizkuntza eredu gainontzeko ikasketetan ere mantendu egiten da: derrigorrezko 2. hezkuntzan eta batxillergoan. - Eskolaz kanpoko jarduerak: kirola, musika, dantza kirol jarduerak euskaraz dira. - eskoaz kanpoko eskola partikularrak euskaraz jasotzen dituzte hurrek eta gazteek. - Eskolaz kanpoko prestakuntza: euskarazko eskaintza.

♪ Laguntza:

- Udalerriko haur kopurua kontutan izanda, 0-3 artean bada nahikoa plazarik?
- Euskarazko hezkuntza eskaintza egokia da? Bada eskaririk?
- Eskolazko prestakuntza jarduerak aintzat hartuta, eskaintza egokia da?

4.2.4 Administrazioa

Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana

4.2.5 Lan Mundua

4.2.5.1 Lan munduan euskararen erabilera handitu.

	2008	Oharrak
• 5.1.1.- Udalerriko enpresak, guztira	148	
• 5.1.2.- Erabilera plana duten enpresak (%)	0	Ez dago erabilera plana duen enpresarik
• 5.1.3.- Euskararen erabilerari lotuta <i>Bikain ziurtagiria</i> duten enpresak (%)	0	

Iturria: Udalerriko enpresak .

4.2.5.2 Merkataritza eta ostalaritzan euskararen erabilera handitu.

	2008	Oharrak
• 5.2.1.- Merkataritza eta ostalaritza arloko establezimenduak, guztira	57	25 ostalaritza (jaketxe, hotel , taberna) 32 merkataritza (garraioarekin lotutakoak barne)
• 5.2.2.- Euskararen erabilerari lotutako <i>Bikain zigilua</i> duten establezimenduak (%)	0	

Iturria: Udalerriko merkataritza eta ostalaritza zentroak.

Ahuleziak	Indarguneak
<ul style="list-style-type: none"> - Enpresek ez dute euskararen erabilerarekiko sentsibilitaterik - Udalak ez du euskara enpresetan sustatzeko baliabiderik bideratzen. - Enpresek ez dute euskararen erabilera planik abian. - Ostalaritza establezimenduetako paisaia ez da euskararen presentzia zaintzen (errotulazioa, web orria, langileen hizkuntza gaitasuna, jabetxeetako menuak) - Ez dago merkataritza sare garrantzitsurik ezta merkataritza elkarterik. Denda bakanak, sektore oso mugatuan dihardutenak: elikagaiak batik bat. - Ez da aurretik euskara sustatzeko proiekturik garatu herrian. - Ostalaritza: bertoko jendeak ez du sektorean lan egin nahi eta etorkinek egiten dute lan arlo honetan 	<ul style="list-style-type: none"> - Enpresetako eta merkataritza/ ostalaritza establezimenduetako jabeen euskararen ezagutza. - Turismoa erakartzeko euskara balio erantsi moduan ikusarazteko aukera. Eskaintza hobetzeko bidea - Turismoak pisu handia du herriko ekonomian.

♪ Laguntza:

- Udallerriak enpresa sare zabala du? Enpresen tamaina. Enpresak euskararen erabilerarekiko sentsibilizatuak daude? Udalak badu baliabide nahikorik arlo hau jorratzeko? Enpresek badute erabilera planik? Plana duten horiek abian jarri dute? Badago baliabiderik enpresa munduan lan hori jorratzen hasteko?
- Merkataritza arloak indar handia du? Merkataritza arloan, badago sentsibilizaziorik? Bada udalerrian merkataritza elkarterik? Merkataritza eta ostalaritza arloan pasaia linguistikoa euskaraz dago? Bada aurretik garatutako esperientziarik?

4.2.6 Aisia

4.2.6.1 Aisialdi eskaintzan euskararen erabilera handitu.

	2008	Oharrak
• 6.1.1.-Euskaraz, edo batez ere euskaraz, funtzionatzen duten aisialdi taldeak (%)	40	Guztiok, elkarte gastronomikoak, gazte lokalak
• 6.1.2.-Udalak euskaraz antolatzen dituen aisialdi ekimenak (%)		Ez du ekimenik prestatzen. Guztiok ekimenaren bitartez eta Gazte plana ekimenaren bitartez antolatzen dituzte batik bat

Iturria: Udalerriko merkataritza eta ostalaritza zentroak.

Ahuleziak	Indarguneak
<ul style="list-style-type: none"> - Ekimenak euskaraz antolatzen dira baina haurren arteko jarduna gaztelaniazkoa izaten da. - Helduen aisialdi elkarteek gaztelaniaz funtzionatzen dute. Banakoen arteko harreman asko euskaraz izaten dira baina elkarteek bere horretan, gaztelaniazko funtzionamendua dute. 	<ul style="list-style-type: none"> - Guztiok proiektutik hainbat ekitaldi antolatzen dituzte, gehienak haur eta gazteentzat. Harrera oso ona dute herrian eta euskaraz izaten dira. Udalaren laguntza jasotzen dute. - Ludotekak eta liburutegiak hainbat ekintza antolatzen dituzte: irteerak, ipuin kontalariak...Haur eta gazteentzat izaten dira eta euskaraz antolatzen dituzte. - Gazteplana jarri da abian, haurrek ez ezik, gazteek ere aisialdi ekintzak izan ditzaten. Udalaren egitasmoa da eta diru-laguntza jasotzen dute. Udalaz kanpoko elkarteak da eta kudeaketa ere Udalaz kanpo burutzen da. - Liburutegiko, ludotekako eta guztiok proiektuko begiraleak, den-denak euskaldunak dira. - Taldeen artean koordinazioa dago, Udalaren eta begirale sarearen artean. - Harrera oso ona izaten dute ekimenek eta 12 urterik beherako haur eta gaztetxo gehienek parte hartzen dute eskainitako ekimenetan. Parte hartze oso zabala.

♪ Laguntza:

- Udalerrian bada aisialdi talderik? Euskaraz funtzionatzen dute? Euskarazko eskaintza egokia da? Dinamikoak dira? Begiraleek badakite euskaraz? Taldeen artean badago koordinaziorik? Udalak laguntzen ditu aisialdi talde horien ekimenak? Zer nolako harrera dute euskarazko aisialdi ekimenek?

4.2.7 Kirola

4.2.7.1 Kirol eskaintzan euskararen erabilera handitu.

	2008	Oharrak
• 7.1.1.-Euskaraz, edo batez ere euskaraz, funtzionatzen duten kirol taldeak/klub-ak (%)	%25	5 taldeetatik eskubaloi taldeak funtzionatzen du batez ere euskaraz.
• 7.1.2.- Kirol taldeetan euskaraz dakiten begiraleen presentzia (%)	%70	Surf taldeko begirale askok ez dakite
• 7.1.3.- Herriko kiroldegian euskaraz eskaintzen diren kirol ikastaroak (%)	%0	Ez da hizkuntza eskaintzaren arabera egiten eta beti tartekatzen dira erdaldunak taldeetan
• 7.1.4.- Herriko kiroldegian euskarazko ikastaroetan partaidetza (%)		
• 7.1.5.- Euskararen presentzia herriko kirol gune nagusietako paisaian (%)	%100	Bai polikiroldegian, bai kirol elkarteetan zaindu den kontua da.

Ahuleziak	Indarguneak
<ul style="list-style-type: none"> - Helduen kirol eskaintza ez da hizkuntzaren arabera egiten, taldeka sortzen dira elebidunak eta elebakarrak nahasiz. - Surf taldeak ikastaroak eskaintzen ditu udan eta normalean, ez dira euskaraz izaten. Begirale asko ez dira euskaldunak (ez dira begiraleak izaten, klubeko kideak baizik). - Kirol taldeen artean ez dago koordinaziorik. - Begiraleen hizkuntza ohiturek pisu handia dute kirol elkarteetan. - Kirol elkarteetako arduradun gehienak erdaldunak dira, Udalarekiko harremana gaztelaniaz. - Beste kirolak egiteko inguruko herritara jo behar da. - Helduentzako kirola gaztelaniaz izaten da, hizkuntza ohiturak eta ezagutza eza bitarteko 	<ul style="list-style-type: none"> - Kirol elkarteetako entrenatzaile (begirale) gehienak euskaldunak dira. - haur eta gaztetxoek begiraleak euskaldunak izan daitezten saiakera berezia. - Udaleko kiroldegiko arduradunak euskararekiko jarrera oso ona. Eskaintza ez da euskararen arabera baina erabilera oso altua. - Elkarte guztiek Udaletik diru-laguntza jasotzeko aukera dute. - 8-18 urte arteko neska-mutil askok parte hartzen dute kirol elkarteetan.

♪ Laguntza:

- Udalerrian bada kirol talderik? Euskaraz funtzionatzen dute? Euskarazko eskaintza egokia da? Dinamikoak dira? Begiraleek badakite euskaraz? Taldeen artean badago koordinaziorik? Udalak laguntzen ditu kirol talde horien ekimenak? Zer nolako harrera dute euskarazko kirol ekimenek?

4.2.8 Kulturgintza

4.2.8.1 Kultur eskaintzan euskararen erabilera handitu.

	2008	Oharrak
• 8.1.1.- Kultur programazioan euskaraz antolatutako ekimenak (%)		Ez dago kultur programazioa bere horretan: Udaleko web orriak agenda baten berri ematen digu eta bertan kirol, kultur ekitaldiak agertzen dira. Haurrentzako ekitaldiak %100 euskaraz antolatzen dira. Helduenak ezin zehaztu.
• 8.1.2.- Euskaraz antolatutako ekimenetan partaidetza (%)		

4.2.8.2 Euskarazko kultur ekoizpenak eta sormena bultzatu.

	2008	Oharrak
• 8.2.1.- Herritarren euskarazko kultur ekoizpenak sustatzera bideratutako baliabideak (€)	-----	Udalak kultur elkarteak laguntzen ditu diruz baina ez du euskararako bereziki dirurik zuzentzen
• 8.2.2.- Lagundutako ekoizpen/proiektu kopurua	-----	
• 8.2.3.- Lagundutako pertsona/talde kopurua	denak	

4.2.8.3 Euskaraz irakurtzeko zaletasuna handitu.

	2008	Oharrak
• 8.3.1.- Udal liburutegian euskaraz erabilgarri dauden irakurgaiak (%)		Liburuzainak ez du datu zehatzik ematen. Katalogo osoa ez dago katalogatuta.
• 8.3.2.- Liburutegian herritarrek euskaraz hartutako irakurgaiak (%)		Adinak du eragina: Haurrek %80 Gazteek %50 Helduek: euskaraz irakurtzeko ohitura gutxi %10

4.2.8.4 Tokian tokiko hizkera, toponimia, historia, ohiturak jaso eta hedatzea sustatu.

	2008	Oharrak
• 8.4.1.- Tokian tokiko hizkeraren erabilera (kale neurketarekin batera)	-----	Mundakako arrantzaleen hizkera jaso zuen Eneko barrutiak bere tesian (200-)
• 8.4.2.- Sortu eta hedatutako produktu kopurua euskarria edozein delarik ere (liburu, jolas, ...)	0	Ez da materialik sortu
• 8.4.3.- Informazio honen hedapenera zuzendutako ekimen kopurua	0	

4.2.8.5 Erljio saioetan euskararen erabilera handitu.

	2008	Oharrak
• 8.5.1.- Sinesmen-mota guztiak aintzat hartuta, saioak guztira		Katolikoek soilik egiten dituzte saioak herrian.
• 8.5.2.- Sinesmen-mota guztietako saioak aintzat hartuta, euskararen erabilera (%)		
• 8.5.3.- Sinesmen-mota guztiak aintzat hartuta, euskarazko erlijio saioetako partaidetza (%)		

Ahuleziak	Indarguneak
<ul style="list-style-type: none"> - Mundakan Udaletik ez dago kultur eskaintza zabalik, ez euskaraz, ez gaztelaniaz. - Eskaintza euskaraz izan arren, sarritan aldatzen da gaztelaniara ezagutza eza dela eta. - Emakumeen kultur elkarteak gaztelaniaz egiten ditu kultur ekimenak. - Ez dago euskarazko kultur produkziarik, Aratusteetako abestien bilduma ez bada. - Ez dago kultur produkziarako laguntzarik ezta hori bideratuko duen sarerik ere. - Mundakako liburutegia ez dago Euskadiko liburutegien sarean ez direlako liburu guztiak katalogatu. Katalogo ezezaguna. - Ez da Mundakako hizkeraren bilketa lana egin ezta sustatu. Lan bakarra Mundakako arrantzaleen hizkera, Eneko Barrutiaren tesia. 	<ul style="list-style-type: none"> - Emakumeen kultur talde oso garrantzitsua dago herrian, sare handia, parte hartze handia, ekimen asko antolatzen dituzte. - Emakumeen taldea oso dinamikoa da eta Udalarekin harreman handia du. - Kirol eta Kultur elkarteentzako diru-laguntzak esleitzen dira Udaletik. Aurtengo aurrekontua 9.700 € - Liburutegian euskarazko hainbat ale daude eta gazte eta haur literaturan bilduma polita dago. - Haurrek eta gazteek euskarazko liburuak irakurtzen dituzte. Euskaraz irakurtzeko joera handia dago. - Ludotekako jolasak euskarazkoak dira. - Ludotekako ekimenetan parte hartze handia egoten da.

<ul style="list-style-type: none">- Adineko jendea hil ahala herriko euskara galtzen ari da. Udaletik ez da horretarako diru-laguntzarik bideratu.- Hizkera galtzen ari da haurretan eta gaztetxoetan, adineko jendeak herriko euskara besterik ez daki.- jende heldua joaten da batik bat meztara, parte hartzea gero eta txikiagoa da eta urteak aurrera joan ahala are txikiagoa izango da.	<ul style="list-style-type: none">- Herriko toponimia eta paisaia euskaraz dago.- Erlijio saioetan euskarak presentzia handia du, abadea euskalduna da.- Erabiltzen den euskara egokia da, bizkaiera erabiltzen baita normalean. Helduek ondo ulertzen dute.
--	--

♪ Laguntza:

- Euskarazko kultur eskaintza bermatzen da? Zer nolako partaidetza lortzen da euskarazko ekimenetan? Bada kultur talderik udalerrian? Dinamikoak dira?. Udalarekiko harremana egokia da? Koordinaziorik bada?
- Euskarazko kultur produkzioak bada? Sustatzen da? Bada hori bideratuko duen sarrerik?
- Kultur ekipamenduak ongi hornituta daude (kultur etxea, liburutegia)? Badira bertan euskarazko kultur produktuak? Zer nolako harrera dute produktu horiek? Kontsumitzen dira? Euskarazko liburuak irakurtzen dira? Jolasak?
- Bertako hizkera ezagutzen da? Erabiltzen da? Historia? Kondairak? Toponimia euskaraz dago?
- Erlijio saioetan, euskarazko eskaintza bermatzen da? Partaidetzarik bada? Erabiltzen den euskara egokia da? Etorkizunera begira aurreikusten da aldaketa nabarmenik?

4.2.9 Komunikabideak

4.2.9.1 Herrian edo eskualdean euskarazko komunikabideen garapena sustatu edota euskararen erabilera bultzatu egungo komunikabideetan.

	2008	Oharrak
• 9.1.1.- Euskara hutsezko komunikabideak (%)	4	Herrian bertan <i>Mundaka Berri</i> hiruhilekoa. Eskualdean: telebista, Hitza, Itsuki irratia (Bermeo).
• 9.1.2.- Euskararen erabilera euskara hutsezkoak ez diren tokian tokiko komunikabideetan (%)		

4.2.9.2 Publizitatean euskararen presentzia bultzatu.

	2008	Oharrak
• 9.2.1.- Udalak eta bere menpeko erakundeek euskaraz argitaratutako publizitatea (%)	%100	Egunkarietan eta elebitan argitaratzen da.
• 9.2.2.- Enpresa, merkataria eta elkarteei eskainitako baliabideak publizitatea euskaraz egiteko		Ez da lanketa berezirik egiten

Ahuleziak	Indarguneak
- Ez dago Udal mailako komunikabiderik. EBPN-a martxan jartzearekin batera aldizkari baten lehen alea argitaratu zen, elebitan, euskara maila kaskarra zuena. Ez da ale gehiago argitaratu. -	- Eskualde mailako euskarazko telebista dago: Oiz-mendi. Euskara maila polita du. - Eskualde mailako Hitza egunkaria banatzen da. Euskara maila polita du.

♪ Laguntza:

- Tokian tokiko komunikabiderik bada (udal mailan edota eskualde mailan)? Eta baldin bada zein da euskararen erabilera?
- Euskarazko komunikabiderik baldin bada, zein da komunikazioaren kalitatea? Bertako langileak euskaraz lan egiteko prestatuak daude?
- Zein dira publizitatea euskaraz egin ahal izateko zailtasunak? Badaude nahikoa publizitate enpresa? Biztanleriak zer deritza euskaraz publizitatearen aurrean?

4.2.10 Teknologia berriak

4.2.10.1 Teknologia berrietan euskararen erabilera handitu.

	2008	Oharrak
• 10.1.1.- Udaleko web orrira euskaraz egiten diren sarrerak (%)	%100	Defektuz euskarazkora sartzen da
• 10.1.2.- Udalaren euskara txokora egiten diren sarrerak		Ez dago euskararen txokorik
• 10.1.3.- Sarean euskararen presentzia gehitzera bideratutako baliabide kopurua (€)		Datu ezezaguna
• 10.1.4.- Udal liburutegiko teknologia berrietan oinarritutako euskarazko materialak (%) eta horien erabilera (%)		Datu ezezaguna

Ahuleziak	Indarguneak
- Teknologia berrietara ez da behar beste diru bideratzen.	- Udalaren web orria elebitan dago, ele bietan eskaintza bera dago. Kalitateari dagokionez, euskara maila ona du. - udalak ez du teknologia berrietarako dirurik, baina azken aldian egindako apurrean euskararen presentzia bermatuta dago

♪ Laguntza:

Udalaren web orrian euskararen presentzia egokia da? Kalitatea egokia da? Udalak teknologia berrietan euskararen presentzia bermatzeko egiten du saiakerarik? Egokia da hori?

4.3 Ahuleziak/Indarguneak matrizea

Eusko Jaurlaritzak proposatutako metodologia berrian ez da AMIA matrizea egiteko esaten. AMIA matrizea egiteko aukerak, mehatxuak, indarguneak eta ahuleziak hartzen dira kontuan. Metodologia berri honetan, aldiz, indarguneak eta ahuleziak baino ez dira aztertzen.

Diagnostia Eusko Jaurlaritzaren ereduak jarraituz egin dugunez, matrizea egiteko ere, hala egingo dugu. Matrize honen asmoa aurreko atal bakoitzean zehaztutako indargune eta ahuleziak bateratzea da, ikuspegi orokorra izanik ondorioak ateratzeko gai izateko.

Ateratako ondorioetan oinarrituko gara hurrengo urratsa definitzeko, hau da, Mundakako EBPN-a garatzeko esparruak eta helburuak aukeratzeko, datozen urteetarako plan estrategikoaren proposamena irudikatzeko eta lehenengo urterako gestio plana zehazteko.

Ahuleziak	Indarguneak
<ul style="list-style-type: none"> - Ez dago baliabide nahikorik, ez materialak ez giza baliabideak. - Udalak ez du inplikaziorik erakusten. - Azpikontratazioa, ez dago epe luzera horretan jardungo duen pertsonarik - Gero eta biztanle gehiago eta gero eta etorkin gehiago, bai Euskal Herritik, bai Estatutik, bai atzerritik. - Gero eta haur/gazte gutxiago. - Etorkinei ez zaie euskararen beharra transmititzen, ez dute lanerako behar. - Etorri berri gehienak errumaniarrak eta hegoamerikarrak: gaztelaniadunak. Errumaniarrek gaztelania ikasten dute - Ez dago merkataritza sarerik ezta elkarterik ere. Ez dago saretuta. - Herriko ostalaritza barne eta kanpo turismora zuzenduta, euskarak ez die balio erantsia suposatzen. - Herriko ostalaritza establezimenduetan atzerriko jende askok egiten du lan. - Ez da merkataritza mailan euskara sustatzeko esperientziarik bultzatu. - Gero eta gaztelania gehiago egiten da etxean - Ohiturak: gaztelaniarako joera 	<ul style="list-style-type: none"> - Inguruko herrien bultzada. - Eusko Jaurlaritzaren egitasmoa. - EAeko herri askotan garatu da EBPN - Kulturantzitasuna eta integrazioa sustatzeko proiektua jarri du abian udalak: "guztiok". - Eskolan D hizkuntza eredu, haurrek euskaraz ikasiko dute. - Trinkotze maila handia, biztanleria herrian bizi da, ez dago auzotan eta baserrian sakabanatuta. - Dendetako jabeek euskara ezagutza handia dute. - Gero eta euskara gehiago egiten da etxean - Euskararen ezagutza oso altua - Gerora euskara ikasi dutenen datu esanguratsua - Euskaldun gehienek etxean jasotzen dute euskara, transmisioa ematen da. - Haur eta gazte etorkinei euskara maila ona lortzeko: Guztiok proiektua, Udaletik lagundua. - Haur eta gazte guztiak euskaldun alfabetatuak dira (<35) - Euskararen ezagutza altua - Adin taldeak: gazte eta haurrek ondo ezagutzen dute hizkuntza. - Itsasoarekin lotura izan duten gizonak euskararako joera, eta euskara maila oso ona. - Eskola bakarra, eredu bakarra: D

<ul style="list-style-type: none"> - Ezagutza handia dago, transmisioa ematen da baina etxeko erabileran etena gertatzen da. - Ezagutza datuarekin alderatuta, erabilera baxua da oso - Ez dago euskara ikasteko zentrorik. - Ez dago euskara ikasteko diru laguntzarik. - Adinaren arabera hiztun alfabetatuak: eskolan euskara ikasteko aukera izan dutenak alfabetatuak, helduak alfabetatugabeak. (>35) - Ez dago ikastaroak antolatzeke ohiturarik, izatekotan gaztelaniaz. - Ezagutzaren datua behera herrian (2006<2001) - Helduek hizkuntza ohiturak oso errotuta: gaztelaniaren belaunaldiak. - Ohituraz, ingurukoekin alderatuta, herri erdalduna izan da Mundaka. - Ez dago 0-3 artean behar beste plaza baina eskaintza handitu egin da. - Eskolak euskaraz dira baina jolasorduak, jatorduko tartea: gaztelaniarako joera handia. - Enpresek ez dute euskararen erabilerarekiko sentsibilitaterik - Udalak ez du euskara enpresetan sustatzeko baliabiderik bideratzen. - Enpresek ez dute euskararen erabilera planik abian. - Ostalaritza establezimenduetako paisaia ez da euskararen presentzia zaintzen (errotulazioa, web orria, langileen hizkuntza gaitasuna, jateetxeetako menuak) - Ez dago merkataritza sare garrantzitsurik ezta merkataritza elkarerik. Denda bakanak, sektore oso mugatuan dihardutenak: elikagaiak batik bat. - Ez da aurretik euskara sustatzeko proiekturik garatu herrian. - Ostalaritza: bertoko jendeak ez du sektorean lan egin nahi eta etorkinek egiten dute lan arlo honetan - Ekimenak euskaraz antolatzen dira baina haurren arteko jarduna gaztelaniazkoa izaten da. - Helduen aisialdi elkarteek gaztelaniaz funtzionatzen dute. Banakoen arteko harreman asko euskaraz izaten dira baina elkarteek bere horretan, gaztelaniazko funtzionamendua dute. - Helduen kirol eskaintza ez da hizkuntzaren arabera egiten, taldeka sortzen dira elebidunak eta elebakarrak nahasiz. - Surf taldeak ikastaroak eskaintzen ditu udan eta normalean, ez dira euskaraz izaten. Begirale asko ez dira euskaldunak (ez dira begiraleak izaten, klubeko kideak baizik). - Kirol taldeen artean ez dago koordinaziorik. - Begiraleen hizkuntza ohiturek pisu handia dute kirol elkarteetan. - Kirol elkarteetako arduradun gehienak erdaldunak dira, Udalarekiko harremana gaztelaniaz. - Beste kirolak egiteko inguruko herritara jo behar da. - Helduentzako kirola gaztelaniaz izaten da, 	<ul style="list-style-type: none"> - Hizkuntza eredu gainontzeko ikasketetan ere mantendu egiten da: derrigorrezko 2. hezkuntzan eta batxillergoan. - Eskolaz kanpoko jarduerak: kirola, musika, dantza kirol jarduerak euskaraz dira. - eskoaz kanpoko eskola partikularrak euskaraz jasotzen dituzte haurrek eta gazteek. - Eskolaz kanpoko prestakuntza: euskarazko eskaintza. - Enpresetako eta merkataritza/ ostalaritza establezimenduetako jabeen euskararen ezagutza. - Turismoa erakartzeko euskara balio erantsi moduan ikusarazteko aukera. Eskaintza hobetzeko bidea - Turismoak pisu handia du herriko ekonomian. - Guztiok proiektutik hainbat ekitaldi antolatzen dituzte, gehienak haur eta gazteentzat. Harrera oso ona dute herrian eta euskaraz izaten dira. Udalaren laguntza jasotzen dute. - Ludotekak eta liburutegiak hainbat ekintza antolatzen dituzte: irteerak, ipuin kontalariak...Haur eta gazteentzat izaten dira eta euskaraz antolatzen dituzte. - Gazteplana jarri da abian, haurrek ez ezik, gazteek ere aisialdi ekintzak izan ditzaten. Udalaren egitasmoa da eta diru-laguntza jasotzen dute. Udalaz kanpoko elkarteak da eta kudeaketa ere Udalaz kanpo burutzen da. - Liburutegiko, ludotekako eta guztiok proiektuko begiraleak, den-denak euskaldunak dira. - Taldeen artean koordinazioa dago, Udalaren eta begirale sarearen artean. - Harrera oso ona izaten dute ekimenek eta 12 urterik beherako haur eta gaztetxo gehienek parte hartzen dute eskainitako ekimenetan. Parte hartze oso zabala. - Kirol elkarteetako entrenatzaile (begirale) gehienak euskaldunak dira. - haur eta gaztetxoek begiraleak euskaldunak izan daitezten saiakera berezia. - Udaleko kiroldegiko arduradunak euskararekiko jarrera oso ona. Eskaintza ez da euskararen arabera baina erabilera oso altua. - Elkarte guztiek Udaletik diru-laguntza jasotzeko aukera dute. - 8-18 urte arteko neska-mutil askok parte hartzen dute kirol elkarteetan. - rrian, sare handia, parte hartze handia, ekimen asko antolatzen dituzte. - Emakumeen taldea oso dinamikoa da eta Udalarekin harreman handia du. - Kirol eta Kultur elkarteentzako diru-laguntzak esleitzen dira Udaletik. Aurtengo aurrekontua 9.700 € - Liburutegian euskarazko hainbat ale daude eta gazte eta haur literaturan bilduma polita dago. - Haurrek eta gazteek euskarazko liburuak irakurtzen dituzte. Euskaraz irakurtzeko joera handia
---	---

<p>hizkuntza ohiturak eta ezagutza eza bitarteko</p> <ul style="list-style-type: none"> - Mundakan Udaletik ez dago kultur eskaintza zabalik, ez euskaraz, ez gaztelaniaz. - Eskaintza euskaraz izan arren, sarritan aldatzen da gaztelaniara ezagutza eza dela eta. - Emakumeen kultur elkarteak gaztelaniaz egiten ditu kultur ekimenak. - Ez dago euskarazko kultur produkzioirik, Aratusteetako abestien bilduma ez bada. - Ez dago kultur produkzioarako laguntzarik ezta hori bideratuko duen sarerik ere. - Mundakako liburutegia ez dago Euskadiko liburutegien sarean ez direlako liburu guztiak katalogatu. Katalogo ezezaguna. - Ez da Mundakako hizkeraren bilketa lana egin ezta sustatu. Lan bakarria Mundakako arrantzaleen hizkera, Eneko Barrutiaren tesia. - Adineko jendea hil ahala herriko euskara galtzen ari da. Udaletik ez da horretarako diru-laguntzarik bideratu. - Hizkera galtzen ari da haurretan eta gaztetxoetan, adineko jendeak herriko euskara besterik ez daki. - jende heldua joaten da batik bat meztara, parte hartzea gero eta txikiagoa da eta urteak aurrera joan ahala are txikiagoa izango da. - Ez dago Udal mailako komunikabiderik. EBPN-a martxan jartzearekin batera aldizkari baten lehen alea argitaratu zen, elebitan, euskara maila kaskarra zuena. Ez da ale gehiago argitaratu. - Teknologia berrietara ez da behar beste diru bideratzen. 	<p>dago.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ludotekako jolasak euskarazkoak dira. - Ludotekako ekimenetan parte hartze handia egoten da. - Herriko toponimia eta paisaia euskaraz dago. - Erljio saioetan euskarak presentzia handia du, abadea euskalduna da. - Erabiltzen den euskara egokia da, bizkaiera erabiltzen baita normalean. Helduek ondo ulertzen dute - Eskualde mailako euskarazko telebista dago: Oiz-mendi. Euskara maila polita du. - Eskualde mailako Hitza egunkaria banatzen da. Euskara maila polita du. - Udalaren web orria elebitan dago, ele bietan eskaintza bera dago. Kalitateari dagokionez, euskara maila ona du. - Udalak ez du teknologia berrietarako dirurik, baina azken aldian egindako apurrean euskararen presentzia bermatuta dago
--	---

4.4 Ondorio nagusiak

Diagnosiko hainbat esparrutan errepikatzen den ahulezia da ondorio nagusienetariko bat, alegia, EBPN garatuko bada, ezinbestekoa da horretarako baliabide pertsonalak eta baliabide ekonomikoak bideratzea.

Aztertutako arloetan behin eta berriz agertu da, hala nola euskara zerbitzua aztertzean, euskalduntzea eta prestakuntza aztertzean, edota kulturgintza, komunikabideak eta teknologia berriak aztertzean. Etengabe errepikatzen den faktorea da, eta ezinbestekoa da euskararentzat aurrekontu bat zehaztea plana garatu nahi bada, bederen.

Bigarren ondorio nagusia ezagutzen datza. Ezagutza oso handia da herrian; erabilera ez, ordea. Gurasoek hizkuntza transmititzen dute, biztanle askoren lehen hizkuntza euskara da-eta, baina etxeko erabileraren datuak ama hizkuntzaren datuak ez du islarik, gehiago baitira etxean gaztelania erabiltzen dutenak, nahiz eta euskara erabiltzen dutenek ere gora egin.

Adinak ere eragin nabarmena du Mundakan. Haurrak eta gazteak euskaldun alfabetatuak dira eta nagusiak euskaldun alfabetatugabeak. Tarteko belaunaldiak ezagutzen du gutxien euskara eta ezagutu arren gaztelania erabiltzeko joera da nagusi.

Haurrak eta gazteak euskaldun alfabetatuak izateko ezinbesteko baldintza herrian dagoen eskola bakarrak D eredia baino ez eskaintzea izan da. Eskola bakarra dago eta herriko haur guztiak bertara joaten dira, herrikoa zein kanpotik etorririkoa izan. Honek etxetik jaso ez dutenen eta herriratu berrien ezagutza bermatzen du.

Etorkinei dagokienez, lan munduan dute eragin nabarmenena. Mundaka zerbitzu herria da, turismora zuzendutakoa eta ostalaritza establezimenduetan egiten dute lan etorkinek. Hala ere, lan munduan euskarak toki txikia izatea ez da etorkinengatik, negozioetako jabe gehientsuenek euskara ezagutzen baitute. Sentsibilitate eta ohitura falta agerikoa da, ez baitago euskara areagotzeko erabilera planik herriko enpresetan.

Bestalde, egia da merkataritza edo establezimendu sarea ez dela zabalegia; beraz, arlo edo esparru honetan eragitea egingarria izan daiteke.

Arloka, kirola, aisia eta kulturgintza izan daitezke, familia transmisioarekin batera, lantzeko esparru garrantzitsuenak, kontuan hartu behar baita Mundakak 1800 biztanle inguru dituela eta EBPNren diagnosirako proposatzen diren hainbat arlotan eragiterik ez duela izango. Ez dago herriko komunikabiderik eta epe motzean ez da egongo, Udalak ez baitu horretara bideratzeko dirurik. Administrazioak aparteko lanketa jarraitzen du eta irakaskuntzako arloa garatuta dago jada, ez baldin bada eskola barruko erabilera areagotzeko planik definitzen, behintzat. Euskalduntzea eta prestakuntza bultzatzeko zentrorik egon ez arren, Udalak aukerak emango balitu eta euskara eskoletarako laguntza emango balu, lantzekoa izango litzateke, baina ezagutza ez da Mundakako EBPN-n landu beharreko lehen arloa.

Hau guztia ikusita eta Mundakako errealitatea ezagututa, Txepetxen hiru zutabeetatik (EZAGUTZA, ERABILERA, MOTIBAZIOA) erabilera eta motibazioa landu beharko lirateke Mundakan, ezagutza handia izan arren, hizkuntzarekiko motibazio eza dela eta, ez baita erabiltzen.

Ibilbide naturala bermatuta dago, transmisioarekin eta eskolarekin baina momenturen batean eten egiten da. Ibilbide kulturala, berriz, ez da ematen.

5 2009-2012 PLAN ESTRATEGIKOA

2009-2012 urteetarako Plan estrategikoa diseinatzeko diagnostik eskuratutako datuak hartu dira oinarrian. Lehenengo plan estrategiko honetan landuko diren esparruak zehaztu dira, kontuan hartuz Udalak euskara sustatzeko jarritako baliabideak zeintzuk diren.

EBPNren metodologian definitutako 10 esparruetatik 6 esparru lantzea proposatzen da Plan estrategiko honetan eta 6 esparru hauetan 7 helburu zehaztu dira, kulturgintza esparruan helburu bi aukeratu dira eta. Konparagarria izan dadin, EBPN arbolak eskainitako esparru, helburu eta adierazleak hautatu dira eta zenbakituta ere hala mantenduko dira, EBPNn agertzen diren bezalaxe.

Aukeratutako esparruak ondorengoak dira:

1. Familia transmisioa
2. Euskalduntzea-Prestatzea
3. Lan mundua
4. Aisia
5. Kirola
6. Kulturgintza

Gainontzekoak aurreragoko Plan Estrategikoetarako utziko ditugu, zerotik abiatuta gorago zerrendatutako sei hauetan esku hartuz aurrerapen nabarmenak egon baitaitezke.

Ondorengo taulan zehaztu dira landu nahi diren esparruak, hauetako bakoitzari lotutako helburuak eta lortutakoa ebaluatzeko erabiliko diren adierazleak.

Esparrua	1.-Familia transmisioa
helburuak	1.1.-Euskararen erabilera handitu etxeko esparruan, eta transmisioa ziurtatu familia kideen arteko hizkuntza izan dadin.
adierazleak	1.1.2. Etxean erabiltzen den hizkuntza 1.1.3. Lehen hizkuntza (> 5urte) adinaren arabera
Esparrua	2.- Euskalduntzea- Prestakuntza
helburuak	2.1.-Euskararen aldeko motibazioa eta euskararen ezagutza handitu herritarren artean
adierazleak	2.1.3. Ikasleei eskainitako diru-laguntzak, guztira 2.1.4. Xede bereziekin antolatutako ikastaro kopurua 2.1.5. Xede bereziko ikastaroetako ikasle kopurua 2.1.7. Biztanleriaren hizkuntza gaitasuna 2.1.8. Euskal hiztunen alfabetatze maila 2.1.9. Kale neurketaren emaitza
Esparrua	5.- Lan mundua
helburuak	5.2.-Merkataritza eta ostalaritza euskararen erabilera handitu
adierazleak	5.2.1. Merkataritza eta ostalaritza arloko establezimenduak, guztira
Esparrua	6.- Aisia
helburuak	6.1.-Aisialdi eskaintza euskararen erabilera handitu
adierazleak	6.1.1. Euskaraz, edo batez ere euskaraz, funtzionatzen duten aisialdi taldeak (%) 6.1.2. Udalak euskaraz antolatzen dituen aisialdi ekimenak (%)
Esparrua	7.- Kirola
helburuak	7.1.-Kirol eskaintza euskararen erabilera handitu
adierazleak	7.1.1. Euskaraz, edo batez ere euskaraz, funtzionatzen duten kirol taldeak/klub-ak (%) 7.1.3. Herriko kiroldegian euskaraz eskaintzen diren kirol ikastaroak (%)
Esparrua	8.- Kulturgintza
helburuak	8.1.-Kultur eskaintza euskararen erabilera handitu
adierazleak	8.1.1. Kultur programazioan euskaraz antolatutako ekimenak (%) 8.1.2. Euskaraz antolatutako ekimenetan partaidetza (%)
Esparrua	8.- Kulturgintza
helburuak	8.2.-Euskarazko kultur ekoizpenak eta sormena bultzatu
adierazleak	8.2.1. Herritarren euskarazko kultur ekoizpenak sustatzera bideratutako baliabideak (€) 8.2.3. Lagundutako pertsona/talde kopurua

6 2009KO KUDEAKETA PLANA

Gorako definitutako Plan Estrategikoak lau urterako marko orokorra ematen du, hau da, lau urte hauetan landuko diren esparruak eta helburuak. Plan Estrategikoa oinarrian hartuta urteko kudeaketa plana definitu behar da, urte bakoitzean egingo den lana zehazteko. Urteko kudeaketa plana definitzerakoan, beti eduki beharko dugu kontuan egingarria izatea eta dauzkagun baliabideekin egin behar dela, alegia, proposamen potoloa egin daiteke baina gauzak aurrera ateratzeko baliabideak behar dira.

2009 urterako, Plan Estrategikoan aukeratutako esparruetatik eta helburuetatik aukeraketa bat egin behar da, lehenengo urte honetan zer eta nola landu erabaki, eta hori aurrera eramateko ekintza zehatzak definitu.

2009 urteko gestio planerako proposamenean ez dira Plan Estrategikoan zehaztutako 6 esparruak landuko, lau baizik. Esparruekin lotuta, lau izango dira helburu nagusiak. Ondorengo lau esparruak landuko dira:

1. Familia transmisioa
2. Euskalduntzea-Prestatzea
3. Aisia
4. Kulturgintza

6.1 Familia transmisioa

Lehenengo urte honetarako ardatz nagusia familia transmisioa izango da, gorago aipatutako euskaldun kopurua eta etxeko hizkuntza erabilera aintzat hartuta ezinbestean landu beharreko gaia baita.

Mundakak ezagutza handia du eta ezagutza horren transmisioa gertatzen dela bermatu behar da. Horretarako ondorengo ekintza orokorrak zehaztu dira, Eusko Jaurlaritzaren metodologia berriaren arabera, ekintzak xehetu beharrean arlo orokorretan biltzea proposatzen baita:

Esparrua	1.-Familia transmisioa
helburuak	1.1.-Euskararen erabilera handitu etxeko esparruan, eta transmisioa ziurtatu familia kideen arteko hizkuntza izan dadin.
adierazleak	1.1.2. Etxean erabiltzen den hizkuntza 1.1.3. Lehen hizkuntza (> 5urte) adinaren arabera
ekintzak	<p>SENTSIBILIZAZIOA</p> <ul style="list-style-type: none"> o Guraso eta aitona-amonetan eragin, euskararen familia bidezko transmisioa ziurtatzeko: haurrek egindako pegatinak, triptikoak... o Gurasoengan eragin euren hizkuntza ohiturak seme-alabengan duen eraginaz jabe daitezten. <p>EKITALDIAK ANTOLATU</p> <ul style="list-style-type: none"> o Guraso berrientzako saio erakargarriak antolatu euskaraz: haurrak nola hezi, nola elikatu ondo, gaixotasunei nola egin aurre... o Ekitaldiak antolatu familia osoa aintzat hartuta, eta ikastetxea eta guraso elkarteekin elkarlanean: Gabonetan, Santo Katalina egunean, Santa Ageda egunean, Aratusteetan.

6.2 Euskalduntzea-Prestatzea

Euskalduntzea eta prestatzea esparruaren barruan, ezagutza sustatzea baino motibazioa landu beharko litzateke, ezagutza handia izan arren erabileran egiten delako kale.

Motibazio kanpainak, mezuak, triptikoak...hainbat baliabide erabilia egoeraren berri eman behar da herrian, bakoitzaren jarrerak duen eragina ezagutarazi eta ohiturak aldatzen lagundu.

Ekintzetan, komunikazioa ere lantzea proposatzen bada era, sentsibilizazio arloari eman nahi zaio garrantzi handiena, sentsibilizaziotik abiatuta erabilerara heltzea egon daitekeelako.

Bestalde, etorri berriei euskara ikasteko aukera bermatu behar zaie eta Udalak diru-laguntzak bideratu beharko lituzke horretarako. Diru laguntzak lortzen ez badira ere, harrera plan bat definitu behar da, eta bertan euskara ikasteko baliabideak jarri behar dira ikasi nahiko luketenen eskura.

Esparrua	2.- Euskalduntzea- Prestakuntza
helburuak	2.1.-Euskararen aldeko motibazioa eta euskararen ezagutza handitu herritarren artean
adierazleak	2.1.3. Ikasleei eskainitako diru-laguntzak, guztira 2.1.4. Xede bereziekin antolatutako ikastaro kopurua 2.1.5. Xede bereziko ikastaroetako ikasle kopurua 2.1.7. Biztanleriaren hizkuntza gaitasuna 2.1.8. Euskal hiztunen alfabetatze maila 2.1.9. Kale neurketaren emaitza
ekintzak	<p>SENTSIBILIZAZIOA o Herritarrengan modu erakargarrian eragin, dakiten euskara hori plazan ere erabiltzeko. Ekimenak definitu eta martxan jarri, herriko eta inguruko eragileekin elkarlanean: kartelak...Kanpainak sustatu.</p> <p>o Etorri berriei bereziki zuzendutako sentsibilizazio kanpainak antolatu, Etorri berrientzako harrera programekin uztartu.</p> <p>o Motibazioa landu: motibazio praktikoa (lana bilatzera bideratua...), motibazio sentimentala (gurea da, aspaldikoa...) eta motibazio kulturala (eskaintza kultural bat galtzen den sentsazioa...).</p> <p>o Euskara komunikatiboa sustatu eta zabaldu. Tokian tokiko euskalkiari lekua egin.</p> <p>KOMUNIKAZIOA o Eskualdeko euskaltegien gaineko gida osatu: zerbitzuak, ordutegiak, helbideak... eta herritarrengana zabaldu.</p> <p>LAGUNTZA EKONOMIKOA ETA TEKNIKOA ESKAINI o Euskara ikasteko diru-laguntzak eskaini baldintza batzuk betetzearen truke: klasera joateko edota autoikaskuntza bidez ikasteko.</p> <p>IKASTARO BEREZIAK ANTOLATU ETA EUSKARRIAK ESKAINI o Asteburuko egitarauak osatu interes bereko pertsonak, gazte taldeak, familiak... elkartu eta euskara kalean erabiltzeko: irteerak, haur jolasak, "euskarazko poteoa", asteburuko haur parkea...</p>

Oso garrantzitsua da guraso gazteengana heltzea, transmisioarekin lotuta, etxeko erabilera ere sustatzeko. Horretarako familientzako egitarau bereziak proposatzen dira, euskaraz antolatutako eta euskaraz jarduteko ikastaroak, ohitura aldaketa indartzeko.

6.3 Aisia

Mundakako errealitatearekin jarraituz, azken urteetan, beste toki guztietan gertatu den legez, etorkinen etorrera nabarmena egon da herrian eta hauentzat ere, euskarara hurbiltzeko bideak irekitzen hasi beharko ginateke.

Gorago aipatutako “guztiok” proiektua aztertu beharko litzateke, etorkinekin lana egiteaz gain herriko gainontzeko hurrekin ere egiten baitu. Ekimen guztietan euskararen presentzia bermatu beharko litzateke, ez begiraleen aldetik bakarrik, haurren arteko harremana ere euskaraz izan dadin eragin beharko litzateke.

Horretarako aisia lantzea arlo interesgarria izan liteke, guztiengana heltzeko bidea.

Aipatutako Proiektuaz gain, ludotekaren eta liburutegiaren aisialdi eskaintza euskaraz izatea bermatu behar da, eta aisialdi garaian haurren harremana euskaraz izatea sustatu eta bultzatu.

Helduen aisialdia arlo oso zehatzei lotuta dago, gastronomia eta ehiza. Momentuz ez dira landuko.

Gazteekin, lokala aitzakia hartuta, lanketa berezia egiten hasi beharko ginateke, ohiturak aztertu eta sentsibilizazioa eta motibazioa landu.

Esparrua	6.- Aisia
helburuak	6.1.-Aisialdi eskaintzan euskararen erabilera handitu
adierazleak	6.1.1. Euskaraz, edo batez ere euskaraz, funtzionatzen duten aisialdi taldeak (%) 6.1.2. Udalak euskaraz antolatzen dituen aisialdi ekimenak (%)
ekintzak	SENTSIBILIZAZIOA o Aisialdi taldeetan eragin, etorri berriak, euskara eta aisialdia uztartuko dituzten ekimenak antolatu ditzaten. ESKAINZA SUSTATU o Haurrentzako ekintzak antolatu: ludoteka, gazte-plana... o Etorri berrien integrazioa bideratutako aisialdi programak bideratu.

6.4 Kulturgintza

Eta ildo beretik, bai herritarrentzat, bai etorkinentzat, euskararen unibertsoa zabaltzeko kultur ekimenak bultzatu beharko lirateke:

Esparrua	8.- Kulturgintza
helburuak	8.1.-Kultur eskaintzan euskararen erabilera handitu
adierazleak	8.1.1. Kultur programazioan euskaraz antolatutako ekimenak (%) 8.1.2. Euskaraz antolatutako ekimenetan partaidetza (%)
ekintzak	<p>SENTSIBILIZAZIOA</p> <ul style="list-style-type: none"> o Herriko kultur elkarteekin hitzarmenak sinatu, haietan euskararen erabilera sustatzeko. o Etorri berriei zuzendutako sentsibilizazio ekintzak, euskarazko kultur jarduerak kontsumitzera animatzeko. <p>ESKAINZA SUSTATU</p> <ul style="list-style-type: none"> o Herriko jaietan antolatzen diren ekitaldietan euskararen erabilera bermatu (kartelak, esku orriak, esatariak...). o Talde ezberdinekin elkarlanean, kolektibo bakoitzari zuzendutako urteko egitaraua osatu. o Haurrentzako kalitatezko kultur emanaldiak antolatu.

Kulturgintza arloan, dantza taldearekin eta emakumeen elkartearekin lanketa egitea proposatzen da. Emakume elkartean euskaraz hitz egiteko ohitura izan ez arren, ezagutza oso altu da eta talde honek hainbat ekimen eta ikastaro antolatzen ditu herri mailan. Sentsibilizazio eta motibazio lanak egin.

Dantza taldeari dagokionez, adina kontuan hartuta, kide guztiak euskaldunak dira eta haien arteko harremana euskalduntzeko lanketa proposatzen da. Eurekin bildu, ekarpenak jaso eta horren arabera ekintzak planteatu.

7 **BIBLIOGRAFIA**

- Agirre Martinez, J.J. (2002). *Bakioko euskara biziberritzeko plana*. HIZNET 01-02 ikasturteko sakontze egitasmoa (argitaratu gabe)
- Alonso Amezua, I eta Arteatx Uriarte, I. (2005) *Otxandioko egungo egoeraren diagnostikoa*. HIZNET 04-05 ikasturteko sakontze egitasmoa (argitaratu gabea)
- Arrieta, A. (2008). *Hizkuntza normalkuntzarako plangintza orokorra*. HIZNET ikastaroko 4.1. ikasgaia (argitaratu gabea)
- Herrate Bergaretxe, J. (2004). *Zumaian euskararen erabilera bultzatzeko plan estrategikoa*. HIZNET 03-04 ikasturteko sakontze egitasmoa (argitaratu gabe)
- *EBPN garatzeko prozedura*. (2009) Eusko Jaurlaritza. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.
- *EBPNren diagnostia*. (2008) Eusko Jaurlaritza. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.
- *EBPNren arbola*. (2008) Eusko Jaurlaritza. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.